

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako ekonomia urte arteko % 3,1eko erritmoan hazi da aurtengo hirugarren hiruhilekoan

Zerbitzuak eta Industria izan dira hazkundera bultzatu duten sektoreak

Viernes, 30 de octubre de 2015

Nafarroako Estatistika Institutuak zabaldu ditu gaur aurtengo hirugarren hiruhilekoari buruzko Nafarroako Hiruhileko Kontabilitatearen [aurrerapen-datuak](#). Foru Komunitateko Barne Produktu Gordina (BPGd) % 0,8 hazi da hirugarren hiruhilekoan, Estatistikako Institutu Nazionalak Espainiarako



Ekonomia % 3,1 hazi da azken urtean.

aurkeztutakoarekin bat datorren aldaketarekin. Oraingo honekin, hazkunde positiboko bederatzirahiruhileko kateatu dira jadanik.

Urte arteko ikuspegitik, hau da, 2014ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz, barne produktua hiru hamarren bizkortu zen % 3,1eraino, eta 2013ko hasieran ekindako pixkanakako susperraldiari eutsi zaio. Espainiarekiko dagoen aldea (Estatuaren urte arteko alderaketa % 3,4koa da) hiru hamarren da. Urteko hirugarren hiruhilekora arte, Nafarroaren batez besteko hazkundera % 2,7 izan da, abuztuan onartutako egoera makroekonomikoan 2015erako jasotako % 2,8ko aurreikuspenarekin bat etorritik.

Eskaintzaren ikuspegi batetik, ekoizpen-sektore guztiek jardueraren hazkundera laguntzen diote, nahiz eta hirugarren sektoreko Zerbitzuak eta Industria diren eragin handiena dutenak. Eraikuntzak hirugarren hiruhilekoan izandako hazkundera ere azpimarratu behar da.

Gastuari dagokionez, kontsumo pribatua da barneko eskaeran zabalkundera zuzentzen jarraitzen duena. Kanpoko eskaeran, ekarpenean uzkiurte bat izan dela ikusi da.

Gaur ezagutarazitako datuek berresten dute Nafarroako ekonomiak bere balio erantsian sendo hazten jarraitzen duela, azken asteotan kontuan hartu beharreko zenbait faktore identifikatu diren arren, eta faktore horiek gauzatzen badira, egonkortzeko egoera horri eragin diezaiokete. Haietako batzuk mundu-mailako susperraldiari lotuta daude, Txinak aurreratutakoa baino uzkiurte handiagoa izatea adibidez; beste zenbait, eskualdearenak beraienak dira, enplegu ezegonkorren

susperraldia, esaterako, edo Volkswagen-en ganean sortutako kezka, isuriak kontrolatzeko sistemetatik sortutako krisiaqatik, nahiz eta gainerako esportazioen jokatide positiboak hura konpentsatu ahalko zuten.